

BALIABIDEAK

Gure produktuak ez ditugu baliatu nahi externalizazioan, nahiz eta gure produktuaren fabrikazioa merkeagoa izan. Izan ere, gure produktuak gure herrialdean bertan ekoitzi nahi ditugu, ez atzerriko garatu gabeko lekuetan, bertan langileak diru gutxi lortu eta lan ordu asko egiten baitute. Hortaz, ez dugu pertsona horiek ustiatu nahi.

Kostuen aldetik, hauek murriztuko genituzke materialaren hautaketaren arabera. Hortarako, leku ezberdinetan begiratuko genuke ahalik eta aurrezki gehiago izateko gure produktuak sortzeko materialak aukeratzeko orduan.

Gure produktuak perfektionatzeko aukera ezberdinak ditugu hauek ahalik eta hoberen atera daitezzen. Alde batetik, hautatu ditugun enpresekin harremanetan jarriko ginateke eta behin adostasun batera iritsita, horiekin astean behin bilduko ginateke, gure produktuaren sorkuntzaren jarraipena egiteko. Horrela, gure bezeroei kalitatea ona eskainiko genioke.

Iraunkortasunari begira, gure enpresak denboraldi luzerako iraun dezake. Azken finean, gure produktuak denbora asko irauten dute eta geroz eta jende gehiago dago hauek erosteko asmotan.